FAMILIA PROGRAMAZIOA
PROGRAMACIÓN FAMILIAR



DENBORAREN LAPURRAK YARLEKU TEATRO

urt 24 ene, 17:00

«Eta altxorrik handiena entzuten ikastea eta presarik gabe bizitzea balitz?»

Momok dohain oso berezi bat du: entzuten badaki. Gizon Grisak pertsonen denbora lapurtzera iristen direnean, inoiz galdu behar ez genukeena berreskuratzeko abentura bati ekingo dio: bizitzeko artea berreskuratzeko abenturari.

Denborari, adiskidetasunari eta elkarri entzuteari buruzko istorio magiko bat, haur zein helduak gelditzera eta munduari beste modu batez begiratzera gonbidatzen dituena.

«¿Y si el mayor tesoro fuera aprender a escuchar y vivir sin prisas?»

Momo tiene un don muy especial: sabe escuchar. Cuando los Hombres Grises llegan para robar el tiempo de las personas, comienza una aventura para recuperar aquello que nunca deberíamos perder: el arte de vivir.

Una historia mágica sobre el tiempo, la amistad y la escucha, que invita a pequeños y mayores a detenerse y mirar el mundo de otra manera.

4€/6€ | 80' | Familia antzerkia/Teatro familiar | Euskaraz/En euskera | +5 urte/años



AMAMÁ AJAYU DÚO

ots 21 feb, 12:00

«Musikaren eta zentzumenen bidez mundua ezagutzeko lehen kontzertua».

Musika-esperientzia murgiltzaile bat haurtxoentzat eta familientzat, non musikak, mugimenduak eta entzuteak artisten eta ikusleen arteko espazio partekatu bat sortzen duten.

Hitzik gabe eta gertutasunaren bidez, proposamen honek haurtxoen adimen musikala eta familiekin duten lotura ospatzen ditu. Entzun, sentitu eta elkarrekin esploratzeko topaketa goxo bat.

«Un primer concierto para descubrir el mundo a través de la música y los sentidos».

Una experiencia musical inmersiva para bebés y familias, donde la música, el movimiento y la escucha crean un espacio compartido entre artistas y público.

Sin palabras y a través de la cercanía, la propuesta celebra la inteligencia musical de los bebés y el vínculo con sus familias. Un encuentro delicado para escuchar, sentir y explorar juntos.

4€/6€ | 40' | Musika/Música | Testurik gabe/Sin texto | Haur txikiak/Primera infancia · 0-3 urte/años



GO!AZEN 13 PAUSOKA

mai 15 may, 17:00/19:00

«Abesti berriak, erronka berriak eta abenturaz beteriko uda Basakabin!»

Basakabi Wellington Music Academy ospetsuaren euskal egoitza bihurtuko da. Ikasle berriak, irakasle berria eta aspaldiko ezagunak elkartuko dira musikaz, umorez eta sorpresaz beteriko uda batean.

Go!azen telesailaren hamahirugarren denboraldia Iortiara iritsiko da, familia osoarekin gozatzeko abesti eta abenturaz beteta. Abesteko, dantza egiteko eta pertsonaia gogokoenekin berriz elkartzeko hitzordua!

«¡Nuevas canciones, nuevos retos y un verano lleno de aventuras en Basakabi!»

Basakabi se transforma en la sede vasca de la prestigiosa Wellington Music Academy. Nuevos alumnos, un nuevo profesor y viejos conocidos se encuentran en un verano lleno de música, humor y sorpresas.

La decimotercera temporada de Go!azen llega a Iortia con canciones y aventuras para disfrutar en familia. ¡Una cita para cantar, bailar y volver a encontrarse con sus personajes favoritos!

10€ | 64'| Musikala/Musical | Familia osoarentzat/Familiar | Euskaraz/En euskera



SCROOGE ETA MAMUAK KHEA ZIATER

mar 21 mar, 17:00

"Hiru izpiritu, ezinezko bidaia bat eta aldatzeko aukera bat"

Scrooge gizon zeken bat da, diruan baino pentsatzen ez duena. Gau batean, Marleyren mamuaren eta hiru izpirituren bisita jasoko du. Izpiritu horiek iraganera, orainaldira eta etorkizunera eramango dute bidaia batean.

Charles Dickensen Gabonetako ipuina lanaren egokitzapen libre honek antzerkia, zinema eta txotxongiloak uztartzen ditu klasiko hau familia osoari hurbiltzeko eta beti beste modu batera begiratzeko garaiz gaudela gogorarazteko.

«Tres espíritus, un viaje imposible y una oportunidad para cambiar».

Scrooge es un hombre avaro que solo piensa en el dinero. Una noche recibe la visita del fantasma de Marley y de tres espíritus que le harán viajar por su pasado, presente y futuro.

Esta libre adaptación de Cuento de Navidad combina teatro, cine y marionetas para acercar el clásico de Charles Dickens al público familiar y recordarnos que siempre estamos a tiempo de mirar de otra manera.

4€/6€ | 60' | Antzerki bisuala/Teatro visual | Euskaraz/En euskera | +5 urte/años

Abonamenduak / Abonos

7
65€

DENBORALDIKO ABONAMENDUA
ABONO TEMPORADA

("Cantado bajo las balas" + "Aletheia" + "Zorra dorada" + "Atra bilis" + "Gool" + "Iortia Antzerki Tailerra/Taller Teatro" + "Itzulera" edo/o "Nafarroako Orkestra Sinfonikoa" / "Itzulera" u "Orquesta Sinfónica de Navarra")

7 ikuskizun + zinema sarrera bat*: 65€
7 espectáculos + una entrada de cine*: 65€
*urtarrilaren 31 arte erabilgarri / Válido hasta el 31 de enero.
Prezioa abonamendurik gabe / Precio sin abono: 72€



- **Salmenta / Venta**
  Urtarrilak 4 enero
  Antzerki Abonamenduen salmenta / Periodo exclusivo para venta de Abonos
  Urtarrilak 7 enero
  Denboraldiko ikuskizunetarako banakako sarreren salmenta hasiera eguna.
  Inicio de venta de entradas individuales a los espectáculos de la temporada.
- **Sarrerak / Entradas**
  www.iortiakultura.com
  Iortia Kultur Gunea
  Felipe Lecea Larrea plaza z/g. 12:00-13:30 / 17:30-19:30
- **Kultur egitaraua jaso / Mantente informada/o**
  Jakin ezazu Iortia Kultur Gunean zer gertatzen ari den gure buletin elektronikoaren edo whatsapp-eko kanalaren bidez.
  Mantente al día de todo lo que ocurre en el Centro Cultural Iortia a través de nuestro boletín que te llegará al email o nuestro canal de whatsapp.

ALTSASUKO UDALA AYUNTAMIENTO DE ALSASUA · Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua · NAFARROAKO ANTZOKI SAREA · inaem · PLATEA · Sendaberri

Iortia
kultur gunea centro cultural

Iortia, luzerako geldialdia
2027eko urtarrila-maiatza abonamenduak

Iortia, parada y fonda
Abonos enero-mayo 2027



urt 23 ene, 19:30

CANTANDO BAJO LAS BALAS

LUNA HIENA INTERACCIONES CULTURALES S.L.

«Ane Gabarainek bizia ematen dio heroi grotesko bati, garratza bezain probokatzailea den kabaret bateari».
Goya sariaren irabazle eta Emmy Nazioarteko sarietarako hautagai izan den aktorea da Millán Astray Espainiako Legioaren sortzaileari buruzko satira honetako protagonista. Aldarrikapenen, kantuen eta handinahikerien artean, jeneralak bere historia kontatu eta kantatzen du.
1936an Miguel de Unamunorekin izandako aurrez aurrekoak abiapuntua ematen dio militarismoaz barre egiten duen eta indarkeriaren gorazarrea nahiz gorroto-diskurtsoak zalantzan jartzen dituen komedia esperpentiko honi.

«Ane Gabarain da vida a un héroe grotesco en un cabaré tan mordaz como provocador».
La ganadora de un Goya y nominada a un Emmy Internacional protagoniza esta sátira en primera persona sobre Millán Astray, fundador de la Legión Española. Entre proclamas, canciones y delirios de grandeza, el general cuenta y canta su propia historia.
El enfrentamiento con Miguel de Unamuno en 1936 sirve de punto de partida para una comedia esperpéntica que se ríe del militarismo y cuestiona la glorificación de la violencia y los discursos de odio.

12€/15€ | 80′ | Antzerkia/Teatro





ALETHEIA
LAS PODERÍO

ots 20 feb, 19:30
«Hiru emakumek hartzen dute hitza beren egia, indarra eta askatasuna ospatzeko».
Antzerkia, flamenkoa, dantza, zuzeneko musika, zirkoa eta umorea uztartzen dira kabaret garaikide honetan. Las Poderíok emakume eta artista gisa bizitako esperientziak euren artean partekatuko dituzte, bakoitzak bere beldur, desio, kontraesan eta ametsekin.
Antzezlanak omendu nahi ditu haien aurretik bidea urratu zuten emakumeak, proposamen fresko, lotsagabe eta indarrez beteriko baten bidez. Bertan, komikoa eta poetikoa uztartzen dira, eta tradizioak gaur egungo munduarekin hitz egiten du.
«Tres mujeres toman la palabra para celebrar su verdad, su fuerza y su libertad».
Teatro, flamenco, danza, música en directo, circo y humor se dan la mano en este varieté contemporáneo. Las Poderío comparten sus vivencias como mujeres y artistas, con sus miedos, deseos, contradicciones y sueños.
La obra rinde homenaje a las mujeres que abrieron camino antes que ellas en una propuesta fresca, irreverente y llena de fuerza, donde lo cómico convive con lo poético y lo tradicional dialoga con lo contemporáneo.

12€/15€ | 60′ | Antzerkia/Teatro·Dantza/Danza·Musika/Música · Zirkoa/Circo | Helduentzat/Público adulto



ZORRA DORADA
ELISA FORCANO

mar 6 mar, 19:30
«Amorru- eta askatasun-oihu bat, zauria erresistentzia bihurtzen duena».
Elisa Forcanok antzerki fisikoa, dantza, performancea, irudia eta hitza uztartzen ditu, gorputzaren eta memoriaren aurka gauzatutako indarkeriari buruzko bakarkako pieza erradikal eta poetiko bateaz.
Antzezlanak abusuari eta gure gorputzaren gaineko kontrola berreskuratzeko beharrari buruzko galderak planteatzen ditu. Intentsitate handiko proposamen garaikidea, 2026ko Max saria jasotakoa, Ikuskizun Berri Onenaren kategorian.
«Un grito de rabia y libertad que transforma la herida en resistencia».
Elisa Forcano cruza teatro físico, danza, performance, imagen y palabra en una pieza unipersonal radical y poética sobre la violencia ejercida sobre el cuerpo y la memoria.
La obra plantea preguntas sobre el abuso y la necesidad de reapropiarnos de nuestro propio cuerpo. Una propuesta contemporánea de gran intensidad, reconocida con el Premio Max 2026 al Mejor Espectáculo Revelación.

8€/10€ | 75′ | Antzerkia fisikoa/Teatro físico · Dantza/Danza · Performancea/Performace



GOOL
YLLANA

api 17 abr, 19:30
«Futbol-satira bat, gure pasioez barre egiteko».
Futbolak mugak eta kulturak gainditzen ditu. Pasioak, milioiak eta borondateak mugiarazten ditu; jatorri, adin eta sinesmen desberdinetako pertsonak elkartu eta banandu egiten ditu». Pasio sakonak eta eztabaida ugari sortzen dituen fenomeno sozial, ekonomiko eta politikoa.
GOOL saioan, Yllana taldeak bete-betean ekiten dio unibertso liluragarri eta kontraesankor honen satirari. Bere umore fisiko eta keinuzko bereziaren bidez, ikuskizunak zaleak, epaileak, entrenatzaileak eta hooliganak aurkezten dizkigu, futbolaren gehiegikeriak eta kontraesanak islatzen dituzten egoera zentzugabeen segida batean.
Erritmo eta ironiaz beteriko hitzik gabeko komedia bisual bat, jokaldi bakoitza geure buruaz barre egiteko aukera bihurtzen duena. Izan ere, futnseam, **GOOL gu guztioi buruz ari da. Eta ezaikitzen dugun munduaz…baloi baten atzetik.**
«Una sátira futbolística para reírnos de nuestras propias pasiones».
El fútbol trasciende fronteras y culturas. Mueve pasiones, millones y voluntades; une y divide a personas de diferentes orígenes, edades y creencias. Un fenómeno social, económico y político que genera enormes pasiones y también numerosas controversias.
En **GOOL**, Yllana se lanza a una sátira en toda regla sobre este universo apasionante y contradictorio. A través de su característico humor físico y gestual, el espectáculo presenta a aficionados, árbitros, entrenadores y hooligans en una sucesión de situaciones disparatadas que reflejan los excesos y contradicciones del fútbol.
Una comedia visual y sin palabras, llena de ritmo e ironía, que convierte cada jugada en una oportunidad para reírnos de nosotros mismos. Porque, en el fondo, **GOOL habla de todos nosotros y del mundo que construimos… persiguiendo una pelota.**

12€/15€/7€ (<19 urte/años) | 85′ | Antzerkia-Umorea/Teatro-Humor |

Urte berri bat dugu aurretik. duzuz betetzeko.gauza berriak dezkubritzeko eta mundua bezte begi batzuekin begiratzeko.

Iztoro aurpetak urtekabeko bidaiak eta mirabaz, aulperkiz, dantzaz eta umorez beterriko topaketak. Proposamen horrek gugiek barre egiteko, zentzuzko eta hausnartzeko gonbidatzen gaituzte, bigiko espaziora, gurtzeaunak galantzan jartzera eta gure garaiari buruzko urtiz berriak partekatzera.

Aukeratu guve gevalekuak eta errezerbatu guve ezerlekuak. Zain izango gaituzu!

Un nuevo año para emocionarnos, dezcubrir_ y mirar el mundo dezde otroz ojoz.
Hiztoriaz valientez, viajez inezperadoz y encuentroz llenoz de música, teatro, danza y humor. Propuezta2 que noz inviten a reír, zentir y reflexionar, a celebrar la vida, cuezt1onar certezaz y compartir nuevaz miradaz zobre nuezt1o tiempo.

¡Elige tuz paradaz y rezerva tuz butacaz. ¡te eszperamoz!



ATRA BILIS
HILO PRODUCCIONES

mar 20 mar , 19:30
«Lau emakume, beilatoki bat eta sekretu bakar bat ere gordeta geratzen ez den gau bat».
Lau emakume adineko Nazariaren senarraren beilatokian elkartzen dira. Oroitzapenen, maitasun-desengainuen eta aspaldiko haserreen artean, gaua komedia beltz gupidagabe bihurtzen da.
Umore garratzaren eta elkarrizketa zorrotzen bidez, antzezlanak agerian uzten ditu miseriak, desioak eta luzaroan gordetako sekretuak. 2026an lau Oh! sarirekin aitortutako ikuskizuna.
«Cuatro mujeres, un velatorio y una noche en la que ningún secreto queda a salvo».
Cuatro ancianas se reúnen en el velatorio del marido de Nazaria. Entre recuerdos, desamores y viejos rencores, la noche se convierte en una feroz comedia negra.
Con humor ácido y diálogos afilados, la obra deja al descubierto miserias, deseos y secretos largamente guardados. Una función reconocida con cuatro Premios Oh! 2026.

12€/15€ | 80′ | Komedia beltza/Comedia negra | Helduak/Público adulto



POR SU CARA BONITA
IORTIA ANTZERKI TALERRA
TALLER DE TEATRO

api 24 abr, 19:30
«Dos planes para un mismo espacio. ¿Quién se saldrá con la suya?»
Un grupo de vecinas y vecinos de un barrio obrero decide ocupar un espacio abandonado desde hace más de diez años para convertirlo en un lugar de encuentro, cultura y acogida. Lo que no imaginan es que, justo entonces, alguien tiene otros planes para ese mismo espacio: hacer negocio y sacar el máximo beneficio.
Una comedia que aborda situaciones muy serias desde el humor y pone sobre la mesa algunos de los conflictos y contradicciones de nuestra realidad actual.
«Espazio berezako bi plan. Zein nagusituko da?»
Langile-auzo bateko bizilagun talde batek hamar urte baino gehiagoz hutsik egon den espazio bat okupatzea erabaki du, topagune, kultur gune eta harrera-leku bihurtzeko. Espero ez dutena da, une horretan bertan, beste norbaitek espazio horrekin negozioa egin eta etekin handiena ateratzeko asmoa izatea.
Umorearen bidez egoera oso serioak lantzen dituen komedia da, gure egungo errealitatearen gatazka eta kontraesan batzuk mahai gainean jartzen dituena.

6€/8€ | 50′ | Antzerkia/Teatro



NAFARROAKO ORKESTRA SINFONIKOA
OROQUESTA SINFÓNICA DE NAVARRA

api 2 abr, 19:30
«Zuzeneko orkestra handi baten emozioa, Iortiarekin urtero duen hitzorduan».
Nafarroako Orkestra Sinfonikoa Iortiara itzuliko da, Altsasuko ikusleekin urtero izaten duen ohiko hitzordura. Pablo Sarasatek 1879an sortu zuen, eta gure inguruko ereferentziazko orkestra sinfoniko historikoetako bat da.
Zuzeneko musika sinfonikoaren aberastasunaz eta emozioaz gozatzeko aukera paregabea. Egitarauari, zuzendariari eta bakarlariei buruzko xehetasunak aurrerago jakinarazkio dira.
«La emoción de una gran orquesta en directo, en su cita anual con Iortia».
La Orquesta Sinfónica de Navarra regresa a Iortia en su tradicional encuentro con el público de Altsasu. Fundada en 1879 por Pablo Sarasate, es una de las formaciones sinfónicas históricas de referencia de nuestro entorno.
Una oportunidad para disfrutar de la riqueza y la emoción de la música sinfónica en directo. El programa, la dirección y los solistas se anunciarán próximamente.

10€/12€ | 60′ | Musika sinfonikoa/Música sinfónica



ITZULERA
DEJABU ANTZERKI LABORATEGIA

ots 27 feb, 19:30
«Errepideko film eszeniko bat, non antzerkia zinema bihurtzen den gure begien aurrean».
Lotsagabea eta psikodelikoa, komedia existentzial honek bizitzako eta sormeneko krisi betean dagoen antzerki-konpainia bateko hiru kidek Mexikora egiten duten bidaia kontatzen du. Proiektu profesional gisa hasten dena, laster ustekabeko abentura bihurtzen da.
Ikusleen aurrean zuzenean sortua, umorea, jazarpenak eta poesia bisuala uztartzen ditu. Eszenatokian, irudiak denbora errealean sortzen dira, eta antzerki-ekintzaren eta hizkuntza zinematografikoaren arteko mugak lausotzen dituzte.
«Una road movie escénica donde el teatro se convierte en cine ante nuestros ojos».
Irreverente y psicodélica, esta comedia existencial sigue el viaje a México de tres integrantes de una compañía teatral en plena crisis vital y creativa. Lo que comienza como un proyecto profesional pronto se transforma en una aventura inesperada.
Creada en directo ante el público, combina humor, persecuciones y poesía visual. Sobre el escenario, las imágenes se generan en tiempo real y difuminan los límites entre la acción teatral y el lenguaje cinematográfico.

12€/15€ | 90′ | Antzerkia/Teatro | Euskaraz, gaztelaniazko azpitituluekin/En euskera, con sobretítulos en castellano